# DONOSTIA OSPITALEKO HARRERA GIDALIBURUA

# MANUAL DE ACOGIDA DEL HOSPITAL DONOSTIA



Osakidetza
Servicio vasco de salud

Hospital Donostia Ospitalea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



## OSAKIDETZA

### Zer da Osakidetza?

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearekin bat etorriz, Osakidetza zuzenbide pribatuko Ente publiko gisa eratu da, Osasun Sailari atxikia, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoari osasun-zerbitzuak hornitzea da bere helburua, beraren menpeko diren Zerbitzu Erakundeen bitartez.

### Nola egituratua dago?

Zuzendaritza Antolamendua
Ente publiko honetako Lehendakaria Osasun Sailburua izango da, eta berak egingo ditu Ente publikoaren eta bere Administrazio Kontseiluaren ordezkaritza-lanak, haren jarduerak gainbegiratuko ditu eta Osakidetzaren eskubideak eta interesak defendatuko ditu.

Administrazio Kontseilua
Ente publikoaren jarduerak zuzentzeko eta zaintzeko ardura duen organo kolegiatua da. Lehendakariaz gain beste 5 kidek osatzen dute, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa.

Administrazioko eta Kudeaketa Korporatiboko Erakunde Zentrala
Administrazio Kontseiluari laguntzeko zuzendaritza-egitura da, eta Zerbitzu Erakundeei dagokienez, kontrol, koordinazio estrategiko, laguntza eta kudeaketarekin loturiko eginkizunak betetzen ditu.

Ente publikoaren menpeko Zerbitzu Erakundeak
Zerbitzu Batzordeek osasun-zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta ekonomia, finantza eta kudeaketa arloan autonomia-printzipioetan oinarriturik jokatzen dute beti.

### Zein erakunde biltzen ditu bere barruan?

Erakunde Zentralaz gain, Osakidetza-Svs izenekoaren barruan 29 Zerbitzu Erakunde daude, Euskadiko Autonomia Erkidegoa banaturik dagoen 3 Osasun Eremuetako bakoitzari atxikiak, hots: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa:

- Lehen Mailako Arretako Zazpi Eskualde.
- Akutuen Hamaika Ospitale
- Egonaldi ertain eta luzeko Hiru Ospitale.
- Lau Ospitale Psikiatriko
- Ospitaletik Kanpoko Buru Osasuneko bi erakunde
- Larrialdiak
- Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa

## OSAKIDETZA

### ¿Qué es Osakidetza?

De acuerdo con la Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi, Osakidetza, Servicio Vasco de Salud, se constituye en un Ente Público de derecho privado adscrito al Departamento de Sanidad, encargado de proveer servicios sanitarios a la Comunidad Autónoma de Euskadi, mediante las Organizaciones de Servicios dependientes del mismo.

### ¿Cómo se estructura?

Organización rectora
Presidencia del Ente Público corresponde al Consejero de Sanidad, quien ejerce las funciones de representación del Ente Público y de su Consejo de Administración, supervisa las actuaciones y ejerce la defensa de los derechos e intereses de Osakidetza

Consejo de Administración
Es el órgano colegiado encargado de dirigir y controlar las actuaciones del Ente Público. Está formado por cinco miembros, además del Presidente, que representan a la Administración de la Comunidad Autónoma.

Organización Central de Administración y Gestión Corporativa
Es la estructura directiva de apoyo al Consejo de Administración que ejerce, en relación a las Organizaciones de Servicios, funciones de control, coordinación estratégica, apoyo y gestión.

Organizaciones de Servicios dependientes del Ente Público
Las Organizaciones de Servicios realizan la provisión de servicios sanitarios, actuando bajo los principios de autonomía económico-financiera y de gestión.

### ¿Qué organizaciones integra?

Además de la Organización Central, Osakidetza-Svs integra 29 Organizaciones de Servicios adscritas a cada una de las tres Áreas de Salud en que se divide la Comunidad Autónoma de Euskadi: Araba, Bizkaia y Gipuzkoa:

- Siete Comarcas de Atención Primaria.
- Once Hospitales de Agudos.
- Tres Hospitales de media y larga estancia.
- Cuatro Hospitales Psiquiátricos.
- Dos organizaciones de Salud mental Extrahospitalaria.
- Emergencias.
- Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

### Osakidetzako Erakunde Zentrala

### Organización central de Osakidetza

| Lehen mailako arreta<br>Atención primaria | | Arreta espezializatua<br>Atención especializada | | Beste erakunde batzuk<br>Otras organizaciones |
|---|---|---|---|---|
| | H. Agudos | H. Media y Larga Estancia | Salud Mental | |
| C. Araba | H. Santiago | H. Leza | H. Psiquiátrico y S.M.E Araba | Emergencias, C.V. Transf. y Tejidos Humanos |
| C. Gipuzkoa Este | H. Txagorritxu | H. Santa Marina | H. Bermeo | |
| C. Gipuzkoa Oeste | H. Alto Deba | H. Górliz | H. Zaldibar | |
| C. Bilbao | H. Bidasoa | | H. Zamudio | |
| C. Interior | H. Donostia | | S.M.E. Gipuzkoa | |
| C. Uribe | H. Zumarraga | | S.M.E. Bizkaia | |
| C. Ezkerr-Enkarterri. | H. Mendaro | | | |
| | H. Basurto | | | |
| | H. Galdakao | | | |
| | H. San Eloy | | | |
| | H. Cruces | | | |



## Osakidetzaren Egìnkizuna

Osakidetzaren egìnkizuna herritarren osasun-premiak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzu publikoak hornitzea da, euskal osasun-sistema gidatzen duten unibertsaltasun, berdintasun, elkartasun, eraginkortasun eta kalitatearen printzipioetan oinarriturik betiere.
Bere jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da eta bere jardueraren helburua osasuna sustatzea, gaixotasunei aurre hartzea, sendatzea eta osatzea dira, Osasun Planetik ondorioztatzen diren lehentasunekin bat etorriz.

## La Misión de Osakidetza

Osakidetza tiene como misión proveer los servicios públicos necesarios para satisfacer las necesidades de salud de la población, bajo los principios de universalidad, equidad, solidaridad, eficiencia y ca!idad que presiden el sistema sanitario vasco.
Su ámbito de actuación es la Comunidad Autónoma del País Vasco y su actividad está orientada a la promoción de la salud, prevención de la enfermedad, curación y rehabilitación, de conformidad con las prioridades emanadas del Plan de Salud.

## Osakidetzaren balioak:

- Bezeroari zerbitzua eskaintzea
- Pertsonen profesionaltasuna
- Pertsonak Osakidetzarekin eta bere zentroekin identifikatzea
- Lehiakortasuna eta emaitzak
- Lankidetza (zentro, zerbitzu, ekipo eta pertsonen artean)

## Los valores de Osakidetza:

- Servicio al cliente
- Profesionalidad de las personas
- Identificación de éstas con Osakidetza y sus centros
- Competitividad y resultados
- Cooperación (entre centros, servicios, equipos y personas)

## Helburu estrategikoak

### Bezeroari zerbitzua eskaintzea

Bezero / pazienteari osasun-asistentziarako zerbitzu orokor bat eskaintzea, kalitatekoa, pertsonalizatua eta azkarra, bere osasun-premiei erantzungo diena.

### Pertsonen inplikazioa

Osakidetza osatzen duen giza taldeak bere ahalmen eta gaitasunak garatu eta hobetu ditzala lortzea, Osakidetzak erakunde gisa dituen filosofia eta helburuekin bat etortzea, eta gogobetetasun-maila jakin batera iristea, bere jarduerak eta jokabideak modu positibo batez egitera motibatuko dituena eta eraginkortasun-maila handiagoak lortzea erraztuko diena.

### Erabateko kalitatea

Osakidetza Entea osatzen duten erakunde desberdinak kudeatzea, erabateko kalitatearen filosofian eta sistemetan oinarritutako erdu baten arabera, eta etengabeko hobekuntza barneratzea, osasun-zerbitzuak hornitzeko eraginkortasun eta egokitasunerako berme gisa.

### Enpresa-garapena

Osakidetza guztiaren garapen eraginkor bat lortzea, enpresa-erakunde gisa harturik, bere zerbitzuak irizpide orokorrekin antolatuz, Zentroen autonomia ekonomikoa eta kudeaketa arlokoa sustatuz, horien artean dauden sinergia handiak kudeatuz eta antolamendu eta kudeaketa arloko eredu eraginkorrak ezarriz, horren azken helburua baliabideak ahalik gehiena aprobetxatzea izanik.

### Garapen teknologikoa

Sarearen barruan teknologiaren eta ikerketaren garapena bultzatzea, bere premietara eta aukeretara egokituz, horien ebaluazioa eta kudeaketa erraztuz, eta halaber, zentro guztietara zabalduz.

## Los objetivos Estratégicos

### Servicio al Cliente

Proporcionar al cliente / paciente un servicio de asistencia sanitaria integrado, de calidad, personalizado y ágil, que responda a sus necesidades de salud.

### Implicación de las personas

Conseguir que el colectivo humano que conforma Osakidetza desarrolle y mejore sus propias competencias y capacidades, se identifique con la filosofía y objetivos de Osakidetza como organización y con los de sus respectivos centros, y alcance un nivel de satisfacción que motive de manera positiva sus actuaciones y comportamientos y favorezca la consecución de mayores niveles de eficacia.

### Calidad total

Gestionar las diferentes organizaciones que conforman el Ente Osakidetza bajo un modelo basado en la filosofía y en los sistemas de la calidad total e introducir la mejora continua como garantía de eficacia y eficiencia en la provisión de servicios sanitarios.

### Desarrollo empresarial

Lograr un desarrollo efectivo del conjunto de Osakidetza como organización empresarial, configurando sus servicios con criterios integrales, potenciando la autonomía económica y de gestión de los Centros, gestionando las grandes sinergias existentes entre ellos e implantando modelos organizativos y de gestión eficaces, con el objetivo último del máximo aprovechamiento de los recursos.

### Desarrollo tecnológico

Potenciar el desarrollo de la tecnología y de la investigación dentro de la red, adecuándolo a las necesidades y posibilidades de la misma, propiciando su evaluación y gestión, así como su difusión en el conjunto de los centros.

## Finantza-bideak

Osasun Saileko Lurralde Zuzendaritzen eta Zerbitzu Erakundeetako Gerenteen artean sinatzen diren Kontratu Programen bidez lortzen da funtsean Zerbitzu Erakundeen finantzaketa. Horietan, jardueraren, kalitatearen eta prezioaren baldintzak ituntzen dituzte urte osorako. Ordaintzera behartuta dauden hirugarrengoetatik (aseguru-konpainiak, partikularrak, etab.) jasotzen dena izango litzateke bigarren finantzaketa-iturri bat. Gainerakoa finantza-sarreretatik eta osagarrietatik (birziklapenerako materialaren salmentak) lortzen da.

## Las vías de financiación

La financiación de las Organizaciones de Servicios se consigue fundamentalmente a través de los Contratos-Programa, firmados entre las Direcciones Territoriales del Departamento de Sanidad y los Gerentes de las Organizaciones de Servicios. En éstos se pactan las condiciones de actividad, calidad y precio para todo el año.
Una segunda fuente de financiación es la procedente de terceros obligados a pago (compañías aseguradoras, particulares, etc.). El resto corresponde a ingresos financieros y accesorios (ventas de material para reciclaje).



## Errekonozimenduak

Osakidetzak, erakunde gisa, edo bere Zerbitzu Erakundeek jaso dituzten aitormenetako batzuk dira honako hauek:

- Bidasoa Ospitaleari (2002) eta Zumarragako Ospitaleari (2003) Eusko Jaurlaritzak emandako Kudeaketa Bikaintasunaren urrezko Q saria.
- Arabako Ospitale Psikiatriko eta O.K.O.M.ari (2001), Txagorritxu Ospitaleari, Gipuzkoako Lehen Arretako Ekialdeko Eskualdeari eta Osateki (2003) Eusko Jaurlaritzak emandako Kudeaketa Bikaintasunaren zilarrezko Q saria.
- Gurutzetako Ospitalea: Irakaskuntza Ospitale Handien (ASIST-HCIA-Sachs taldea) TOP 20 sailkapenean lehen eta bigarren postua 2000 eta 2001. urteetan.
- Zumarragako Ospitalea: Golden Helix 2001 Saria.
- Zumarragako Ospitalea: Herritartasunaren 2002 Saria
- Osakidetza osatzen duten hogeita hamar Zerbitzu Erakundeetako hamabiri 2001. urtean Euskalitek emandako Bikaintasunarekiko Konpromiso Diploma.
- ISO Arauaren araberako Ziurtagiriak hogeita hamar Osasun Zentro ingururi, Transfusioaren eta Giza Ehunen Euskal Zentroari eta sareko zazpi Ospitaletako zenbait zerbitzuri.
- Ezagutzaren Klusterrak (Enpresa Kudeaketako Ezagutzaren Elkarteak) Kudeaketa Enpresa aurreratuaren aitormena eman dio Osakidetzari 2001. urtean, eta halaber, Osasuneko Eskola Nazionalak berrikuntza-ibilbidearen sari berezia (2003) eman dio.

## Los reconocimientos

Algunos de los reconocimientos de que ha sido objeto Osakidetza como entidad o sus Organizaciones de Servicios son los siguientes:

- Q de oro a la excelencia en la Gestión otorgada por el Gobierno Vasco al Hospital de Bidasoa (2002) y al Hospital de Zumarraga (2003).
- Q de plata a la excelencia en la gestión ortorgada por el Gobierno Vasco al Hospital Psiquiátrico y S.M.E. de Araba (2001) y al Hospital de Txagorritxu, a la Comarca Este de Atención Primaria en Gipuzkoa y a Osatek (2003).
- Hospital de Cruces: Primer y segundo puesto en la clasificación TOP 20 de Grandes Hospitales Docentes (ASIST-Grupo HCIA-Sachs) en los años 2000 y 2001.
- Hospital de Zumárraga: Premio Golden Helix 2001.
- Hospital de Zumárraga: Premio Ciudadanía 2002
- Diploma de Compromiso con la Excelencia durante el año 2001 otorgado por Euskalit a doce de las treinta Organizaciones de Servicios que integran Osakidetza.
- Certificaciones según Norma ISO en treinta Centros de salud, el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos y diversos servicios pertenecientes a siete Hospitales de la red.
- Osakidetza, Servicio vasco de salud ha sido reconocido en el año 2001 como Empresa avanzada en Gestión por el Cluster del Conocimiento (Agrupación del Conocimiento en Gestión Empresarial) y premio especial a la trayectoria de innovación de la Escuela Nacional de Sanidad (2003).

# DONOSTIA OSPITALEA

# EL HOSPITAL DONOSTIA



## Gure historia

Donostia Ospitalea Osakidetzaren osasun-sarearen barruan dago, eta 2001eko otsailaren 14an eratu zen. Era horretan, ordu arte Zorroaga gainean zeuden ospitaleak batean biltzeko helburuz 1993. urtean abiarazitako prozesu bat amaitu zen.
Baterakuntza-prozesu horren barruan, 1997ko maiatzaren 22an, Donostia Ospitale Gunea eratu zen, lau antolamendu-unitate zituela: Amara, Arantzazu, Gipuzkoa ospitaleak eta Laborategi Bateratua, ospitale horietako eta Gros eta Tolosako anbulatorioetako laborategi-baliabideekin eratua, baita Instituto Social de la Marinatik eskualdatutakoekin ere. Ezagutzak eta teknikak partekatzeko eta, azken batean, herritarrei osasun-laguntzarik onena eskaintzeko balioko luketen eta ikerketa bultzatuko luketen eszenatoki orokor berriak sortzeko testuinguru komun bat finkatu nahirik sortua, Donostia Ospitale Guneak baterakuntza horretarako oinarriak ezarri eta egitura berriaren diseinua finkatu zuen, ospitale bakarrean biltzeko helburuz, hots: Donostia Ospitalea.
Patologia akutuetan Gipuzkoa osoarentzako erreferentzia-gune da eta gutxi gorabehera 350.000 biztanleri eskaintzen die zuzeneko arreta. Egonaldi ertain-luzeko eta akutuen psikiatriako eremuetan, herrialde historiko osoari egiten dio arreta. Beste alde batetik, ospitalez kanpoko arreta ere eskaintzen du Gros, Lartzabal eta Pasaiako anbulatorioetan.

## Nuestra historia

El Hospital Donostia pertenece a la red sanitaria de Osakidetza/servicio vasco de salud y se constituyó el 14 de febrero de 2001, lo que supuso la culminación de un proceso iniciado en 1993 con el objetivo de fusionar los hospitales existentes entonces en el Alto de Zorroaga. Dentro de este proceso de convergencia, el 22 de mayo de 1997 se creó el Complejo Hospitalario Donostia con cuatro unidades organizativas: los hospitales Amara, Arantzazu, Gipuzkoa y el Laboratorio Unificado, constituido con los recursos de los laboratorios de dichos hospitales y los de los ambulatorios de Gros y Tolosa, así como el transferido del Instituto Social de la Marina.
Nacido con la voluntad de establecer un marco común que impulsara nuevos escenarios globales que potenciasen la investigación y sirviesen para compartir conocimientos, técnicas y, en definitiva, ofrecer la mejor asistencia sanitaria a los ciudadanos, el Complejo Hospitalario Donostia puso las bases de la unificación y estableció el diseño de la nueva estructura encaminada a la convergencia en un único hospital: el Hospital Donostia.
En patologías agudas es centro de referencia para toda Gipuzkoa y atiende directamente a una población de alrededor de 350.000 habitantes. En las áreas de media-larga estancia y psiquiatría de agudos atiende a todo el territorio histórico. Por otra parte, el hospital presta atención extrahospitalaria en los ambulatorios de Gros, Larzabal y Pasaia.



## Ospitalearen kopuruak

Donostia Ospitalea Euskadiko osasun-zentro garrantzitsuenetako bat da. 1.100 ohe baino gehiago ditu, gehienak egonaldi laburrekoak, baina badira egonaldi ertain-luzeko eta akutuen eremu psikiatrikorako beste batzuk ere. Urtean 45.000 ingresu baino gehiago dituela, Ospitaleak urtean gutxi gorabehera 400.000 egonaldi jasotzen ditu, eta akutuetan duen Batez Besteko Egonaldia 7,24 egunekoa da. Ebakuntza-aurreko Batez Besteko Egonaldia 0,98 egunekoa da.

26 ebakuntza-gela ditu, urteko ebakuntza kirurgikoak 250.000 baino gehiago dira, eta epe horretan 595.166 kontsulta izan ohi dira, ospitale barrukoak eta ospitale kanpokoak kontuan izanik, baita 141.000 larrialdi ere, eta horrek esan nahi du egunean 386,84 larrialdi izaten direla batez beste. Urtero gure ospitalean 4.000 neska-mutiko jaiotzen dira.

Jarduera hori egiteko, Donostia Ospitaleak 209 milioi euro baino gehiago inbertitzen ditu.

## El Hospital en cifras

El Hospital Donostia es uno de los principales centros sanitarios del País Vasco. Dispone de más de 1.100 camas, la mayoría destinadas a corta estancia, pero también existen otras para media-larga estancia y para el área psiquiátrica de agudos. Con más de 45.000 ingresos por año, el Hospital atiende cerca de las 400.000 estancias anuales y tiene una Estancia Media en agudos de 7,24 días. La Estancia Media Preoperatoria es de 0,98 días.

Cuenta con 26 quirófanos, las intervenciones quirúrgicas anuales superan las 250.000 y se atienden en ese periodo 595.166 consultas, entre hospitalarias y extrahospitalarias, así como 141.000 urgencias, lo que supone una media de urgencias por día de 386,84. Cada año nacen en nuestro hospital más de 4.000 niños y niñas.

Para realizar esta actividad, el Hospital Donostia invierte más de 209 millones de euros.

## Gure Eginkizuna

Donostia Ospitalea hirugarren mailako izaera duen osasun-zentro bat da eta bere helburu nagusia asistentzia orokorra eta kalitaterik gorenekoa eskaintzea da. Horretarako kualifikazio handiko ekipoa du, 3.000 profesionalek eta bitarteko teknologiko aurreratuenek osatua. Patologia akutuen tratamendurako bereziki zuzendutako asistentzia izaera horretaz gain, irakaskuntza eta ikerkuntzaren alorrean zenbait eginkizun garrantzitsu betetzen ditu.

Gure zentroa etengabeko hobekuntzarako prozesu batekin konprometitua dago, bertan dauden bitartean pazienteek arretarik eta zainketarik onenak jaso ditzaten. Hitz batean esateko, bezeroa sistemaren erdi-erdian kokatzeko.

Profesional guztien inplikazio eta dedikazioarekin eta Kalitateko metodologia baten aplikazioarekin bakarrik lor daitezke helburu horiek. Ospitaleak espezialitate mediko, kirurgiko eta zerbitzu orokor guztiak ditu. Halaber, espezialitate gehienetan irakaskuntzarako akreditazioa du.

Era berean, beste ospitale batzuekin nazioarteko lankidetza-hitzarmenak ezarriak ditu, eta sarri askotan, mundu osoko espezialistek saio kliniko eta kirurgikoak eskaintzen dituzte teknikarik aurreratuenak aurkezteko.

## Nuestra Misión

El Hospital Donostia es un centro sanitario de carácter terciario cuyo objetivo esencial es ofrecer una asistencia integral y de la más alta calidad. Cuenta para ello con un equipo altamente cualificado de más de 3.000 profesionales y los medios tecnológicos más avanzados. Además de su carácter asistencial, dirigido especialmente al tratamiento de patologías agudas, tiene importantes funciones docentes y de investigación.

Nuestro centro está también comprometido en un proceso de mejora continua para que los pacientes reciban la mejor atención y cuidados durante su estancia. En una palabra, situar al cliente en el centro del sistema.

Estos objetivos sólo se alcanzan con la implicación y dedicación de todos los profesionales y la aplicación de una metodología de Calidad. El hospital cuenta con todas las especialidades médicas, quirúrgicas y servicios generales. Así mismo, posee acreditación docente en la mayoría de las especialidades.

También tiene establecidos convenios internacionales de colaboración con otros hospitales y frecuentemente especialistas de todo el mundo ofrecen sesiones clínicas y quirúrgicas para presentar las técnicas más avanzadas.

## Nolakoa da gure antolamendua

## Cómo es nuestra organización

## ORGANIGRAMA








## Antolamendu funtzionala

Donostia Ospitalearen egitura funtzionala, Osakidetzaren sareko gainerako ospitale-zentroena bezala, 194/1996 Dekretuan arautua dago, eta dekretu horrexek arautu eta sortu zituen, halaber, organo desberdinak, zentroetako profesionalen parte-hartzea errazteko. Era berean, bi eratako organoetan oinarritutako egitura bat finkatu zuen:

- Zuzendaritza eta Kudeaketa: Gerentea, Zuzendaritza Taldea eta Zuzendaritza Kontseilua

Gerenteak eta Zuzendaritza Taldeak zentroaren zuzendaritza eta kudeaketaren eginkizunak betetzen dituzte, eta Zuzendaritza Kontseiluari dagozkio plangintza-eginkizunak. Gerenteak eta Zuzendaritza Taldeak osatzen dute gaur egun Zuzendaritza Kontseilua.

Profesionalek ospitalearen kudeaketan parte hartzeko eta aholkuak emateko organoa Kontseilu Teknikoa da. Asistentziaren alorreko kalitate-politikak prestatzea, zentroaren antolamendua eta funtzionamendua hobetzea, estrategia asistentzial, diagnostiko eta terapeutiko berriak balioestea, eta ikerketa, irakaskuntza eta prestakuntza alorretan jarduketa-ildoak proposatzea izango dira bere eginkizunak.

Medikuen saileko 6 ordezkarik, erizainen saileko 4 ordezkarik, Erizaintzako Zuzendaritzak, PEAZeko arduradunak eta Medikuntza Zuzendaritzak osatuko dute. Medikuntza Zuzendaritzako ordezkaria izango da lehendakaria.

## Organización funcional

La estructura funcional del Hospital Donostia, como el resto de centros hospitalarios de la red de Osakidetza, está regulada por el Decreto 194/1996, que regularizó y creó diferentes órganos para favorecer la participación de los profesionales de los centros y estableció una estructura basada en dos tipos de órganos:

- Dirección y Gestión: Gerente, Equipo Directivo y Consejo de Dirección.

El Gerente y el Equipo Directivo ejercen las funciones de dirección y gestión del centro, reservándose al Consejo de Dirección las funciones de planificación. El Consejo de Dirección está formado actualmente por el Gerente y Equipo Directivo.

El Consejo Técnico es el órgano de asesoramiento y participación de los profesionales en la gestión del hospital. Tiene las funciones de formulación de políticas de calidad asistencial, de mejora de la organización y funcionamiento del centro, valoración de nuevas estrategias asistenciales, diagnósticas y terapéuticas, así como propuestas de líneas de actuación en investigación, docencia y formación.

Está compuesto por 6 representantes del colectivo médico, 4 representantes del colectivo de enfermería, Dirección de enfermería, responsable del SAPU y la Dirección Médica, cuyo representante actúa como presidente.

## Batzordeak eta Komiteak

- Tumoreak
- Transfusioak
- Infekzioak
- Historia Klinikoak
- Heriotza-tasa
- Amagandiko edoskitzea
- Etika Asistentzialaren Batzordea
- Farmazia
- Entsegu Klinikoak
- Irakaskuntza

## Comisiones y Comités

- Tumores
- Transfusiones
- Infecciones
- Historias Clínicas
- Mortalidad
- Lactancia Materna
- Comité de Ética Asistencial
- Farmacia
- Ensayos Clínicos
- Docencia

## Kalitatea

Kalitatea eta bere etengabeko hobekuntza Ospitaleko Zuzendaritzaren helburu nagusia da. Horretarako, Kalitatearen Kudeaketako Europako Fundazioaren Bikaintasuna (EFQM) hartzen du eredu gisa.

Zuzendaritzak, aldian behin, auto-ebaluaziorako prozesu bat egiten du, EFQMaren diseinuari jarraiki, egoerari buruzko diagnostiko bat egiteko eta estrategia, ekintza-planak eta Ospitalea esandako Bikaintasun Eredu horretara hurbilduko duten helburuak erabakitzeko.

Kalitate Unitatearen eginkizunetako bat da, duela hamarraldi bat baino lehenagotik, auto-ebaluaziorako prozesu honi metodologia mailan babesa ematea.

Kalitateko Unitateak koordinaturik, badira profesionalek osatutako zenbait batzorde kliniko, eremu bereziez arduratzen direnak: Infekzioak, Heriotza-tasa, Tumoreak, Historia Klinikoak, Transfusioak, etab. Batzorde klasikoez gain, duela zazpi urtetatik hona abian da Etika Asistentzialaren Batzordea, jarduera klinikoan sortzen diren gatazka etikoak aztertu eta profesionalei aholku ematen diena, eta ospitaleko zerbitzu desberdinek prestatzen dituzten Jakinaren Gaineko Onespen agiriak aztertzen dituena. Batzorde kliniko horien garrantziaren erakusgarri, ehun bat mediku eta erizainek parte hartzen dute beren ezagupenen bidez lan-talde horietan. Batzorde egonkor horiek badaude ere, ospitalean badira diziplina anitzeko aldi baterako beste lan-talde batzuk ere, eta horien eginkizuna, prozesu klinikoak nahiz antolamendu mailakoak aztertu eta hobetzea izan ohi da.

## Calidad

La Calidad y su mejora continua es el objetivo principal de la Dirección del Hospital. Para ello, tiene como modelo el de Excelencia de la Fundación Europea de la Gestión de la Calidad (EFQM).

La Dirección realiza periódicamente un proceso de autoevaluación siguiendo el diseño de la EFQM para efectuar un diagnóstico de situación y decidir la estrategia, los planes de acción y los objetivos que vayan acercando al Hospital a dicho Modelo de Excelencia.

Apoyar metodológicamente este proceso de autoevaluación es una de las funciones de la Unidad de Calidad, que existe desde hace más de una década.

Coordinadas por la Unidad de Calidad, existen comisiones clínicas formadas por profesionales que se preocupan de áreas especificas: Infecciones, Mortalidad, Tumores, Historias Clínicas, Transfusiones, etc. Además de las comisiones clasicas, desde hace siete años está en marcha la Comisión de Ética Asistencial, que estudia y asesora a los profesionales en los conflictos éticos que se plantean en la práctica clínica y analiza los documentos de Consentimiento Informado que elaboran los diferentes servicios del hospital. La importancia de las comisiones clínicas se desprende del hecho de que alrededor de un centenar de médicos y enfermeras participan con su conocimiento en estos grupos de trabajo. Independientemente de la existencia de estas comisiones estables, funcionan en el hospital otros grupos de trabajo multidisciplinarios temporales cuya misión es el estudio y mejora de procesos tanto clínicos como organizativos.



Kalitaterako alderdi benetan garrantzitsua denez gero, Unitate honek erabiltzaileen gogobetetasun-inkestak kudeatzen ditu. Inkesta horiek gaixoen arretaren ia alderdi guztiak hartzen dituzte beren baitan (hala nola, ospitaleratzea, kontsultak, larrialdiak eta eguneko ospitalea), eta oso erabilgarriak dira hobekuntza-neurriak hartu ahal izateko.
Laburbilduz, ospitale honetako profesionalei buruz esan dezakegu ikasi egiten duten pertsonak direla, beren ezagupenak helarazten dizkietela beren kideei nahiz medikuntza eta erizaintzako ikasleei eta etengabeko hobekuntzan inplikaturik daudela, bai beren jarduera profesionaletik eta bai beren giza kalitatearen aldetik ere.

**Tel.: (83) 7102**
ucalidad@chdo.osakidetza.net

## Irakaskuntza eta Prestakuntza

Irakaskuntza eta prestakuntza funtsezko elementuak dira osasun-arreta kalitate-maila egoki batez bermatzeko, eta oso harreman estua dute erakunde bat osatzen duten profesional sanitarioen nahiz ez-sanitarioen gaitasun eta ahalmenekin.
Bi elementu horiek askoz ere beharrezkoagoak dira etengabe gertatzen ari diren aldaketa kualitatiboen ondorioz, horiek guztiek ezagupenak, baina baita gaitasun eta jokaera berriak ere, barneratzea eskatzen baitiete profesionalei.
Osasun Planean identifikatutako lehentasunetan eta Osasuna Zainduz lanean euskal osasunarentzat finkatzen diren aldaketa-estrategietan oinarriturik, Donostia Ospitaleko etengabeko prestakuntza ez da soilik ikastaro edo mintegien multzo bat egitea, baizik eta eguneroko jardunarekin loturiko jarduerak antolatzea ere bada.
Gradu-ondoko irakaskuntza, beste alde batetik, ezagupenak eskuratzeko epe garrantzitsu bat da, etorkizunean espezialitate bat garatzeko edo lanbideak beharrezkoak dituen ezinbesteko alderdiak sakontzeko. Ikastaro bakoitzean, ehun mediku egoiliarrek baino gehiagok Donostia Ospitalean egiten dute beren gradu-ondoko heziketa, eta horretarako, tutore kreditatuak daude bertan. Beren heziketa osatzeko, urte osoan zehar hainbat ikastaro antolatzen dira esparru desberdinetan, hala nola ospitaleko nutrizioa, EKG, BBB, historia klinikoa edo laborategia.
Etengabeko prestakuntza horren garrantzia ikastaro espezializatuetara joaten direnen kopuruan ikus daiteke, urtean batez beste 500 lagun izaten baitira, baita izaera zientifikoa duten beste jarduera batzuetan ere, hala nola biltzarrak, jardunaldiak edo sinposioak.

### BAME Irakaskuntza
Ama Haurren Eraikineko -1 Solairu Berdean dago.
**Tel.: (83) 7003**

### Fakultatiboen Etengabeko Heziketa
Zerbitzu Orokorren Eraikineko Lehen Solairuan dago.
**Tel.: (82) 7041 / (83)7330**
forcofa@chdo.osakidetza.net
gibiblio@chdo.osakidetza.net

### Erizaintzako Irakaskuntza eta Etengabeko Heziketa
Zerbitzu Orokorren Eraikineko Lehen Solairuan dago.
**Tel.: (82) 60 03 / (83)7330**
docencia@chdo.osakidetza.net

## Ikerketa

Donostia Ospitalean egiten den ikerketa, batez ere, klinikoa edo oinarrizkoaren eta klinikoaren arteko "zubi" erakoa da, eta neurri apalago batean, epidemiologikoa.
Ikerketa Unitatea bi eremutan egituratua dago: Epidemiologia Klinikoa eta Esperimentala.

Como parte importante de la calidad, la Unidad gestiona las encuestas de satisfaccion de los usuarios. Dichas encuestas abarcan prácticamente la totalidad de la atencion de los enfermos: hospitalizacion, consultas, urgencias y hospital de día, y son de gran utilidad para la adopción de medidas de mejora.
En resumen, podemos definir a los profesionales de este hospital, como personas que aprenden, que transmiten su conocimiento interpares y a los estudiantes de medicina y enfermería y que están implicados en la mejora continua tanto de su actuación profesional como de su calidad humana.

**Tef.: (83) 7102**
ucalidad@chdo.osakidetza.net

## Docencia y Formación

La docencia y la formación son elementos fundamentales para garantizar una atención de salud con un nivel adecuado de calidad y están íntimamente relacionadas con la competencia y capacitación de los profesionales, tanto sanitarios como no sanitarios, que conforman una organización. Ambos elementos son todavía mucho más necesarios por los cambios cualitativos que se producen permanentemente y que exigen a los profesionales la incorporación de conocimientos, pero también de habilidades y actitudes nuevas.
Sobre la base de las prioridades identificadas en el Plan de Salud y las estrategias de cambio para la sanidad vasca que se establecen en Osasuna Zainduz, la formación continuada en el Hospital Donostia no consiste solamente en un conjunto de cursos, cursillos o seminarios sino también en la organización de actividades relacionadas con la práctica diaria.
Por su parte, la docencia postgraduada supone una importante etapa de adquisición de conocimientos para desarrollar en el futuro una especialidad o profundizar en aspectos indispensables que la profesión requiere.Cada curso, más de un centenar de médicos residentes realizan su formación postgrado en el Hospital Donostia, que cuenta para ello con tutores acreditados. Para completar su formación, a lo largo del año se organizan cursos en diferentes materias como nutrición hospitalaria, ECG, RCP, historia clínica o laboratorio.
La formación continuada se refleja en la asistencia a cursos especializados con una media anual de 500 asistentes, además de otras actividades de carácter científico como congresos, jornadas o simposios.

### Docencia MIR
Está ubicada en la Planta –1 Verde del Edificio Materno Infantil.
**Tef.: (83) 7003**

### Formación Continuada de facultativos
Está ubicada en la Planta Primera del Edificio de Servicios Generales.
**Tef.: (82) 7041 / (83)7330**
forcofa@chdo.osakidetza.net
gibiblio@chdo.osakidetza.net

### Docencia y Formación Continuada de Enfermería
Está ubicada en la Planta Primera del Edificio de Servicios Generales.
**Tef.: (82) 60 03 / (83)7330**
docencia@chdo.osakidetza.net

## Investigación

La investigación que se realiza en el Hospital Donostia es sobre todo clínica o de tipo "puente" entre la básica y la clínica, y en menor medida, epidemiológica.
La Unidad de Investigación está estructurada en dos áreas: Epidemiología Clínica y Experimental.



Epidemiologia Klinikoko Unitatearen helburu orokorra jarduera klinikoari buruzko ikerketa da: erabaki klinikoen eraginkortasuna eta baliagarritasuna. KUak aholkularitza metodologikoa eskaintzen die ikerketa-proiektuei eta ikerketaren kudeaketan parte hartzen du, eta halaber, ikerketako pertsonalari buruzko datu-baseak dauzka. Tumoreen erregistroaren, Ikerketa Batzordeko idazkaritzaren eta CEIC izenekoaren egoitza ere bada, eta horretaz gain, Gipuzkoako EOMaren mugimendua sustatu eta bultzatzen du.
Unitate Esperimentalak aholkularitza eta laguntza eskaintzen du ikerketa nahiz irakaskuntza arloko proiektuak diseinatu, finantzatu edo prestatzeko orduan, eta halaber, pazienteak ez baizik beren laginak edo haien ordezko erreaktibo biologikoak edo modelo artifizialak erabiltzen dituzten prozeduretako jarduerak antolatzeko orduan.

**Epidemiologia klinikoa**
**Tef.: (83) 7402**
mjvelazq@chdo.osakidetza.net

**Unitate Esperimentala**
**Tef.: (83) 7061**
uniexpe3@chdo.osakidetza.net

## Informazio Sistemak

Informazio Sistemen Azpi-zuzendaritza arduratzen da ospitale osoak arlo honetan izan ditzakeen premiei erantzun bat emateaz, informazioaren teknologia berriak aplikatuz eta informatika-ekipo, aplikazio eta web ingurune desberdinen mantentze-lana eginez, eta halaber, esparru honetan heziketa-ikastaroak antolatuz eta aholkularitza eskainiz.
Gipuzkoa Eraikineko Zerbitzu Orokorren Eraikineko Behe Solairuan kokatua dago.

Harremanetarako Telefonoa **943 006052**
cyubero@chdo.osakidetza.net
Asistentziarako Informazioa: **(82) 7074 ó 943 006023**
sisa @chdo.osakidetza.net
Matxurak/Gorabeherak: **943 006050 ó (82) 7209**
incidenc@chdo.osakidetza.net

## Komunikazioa

